

VITAL FUNDAZIOA EMAKUMEZKOEN TENIS TXAPELKETAREN OINARRIAK

Antolatzailea: Vital Fundazioa da txapelketaren antolatzailea, eta Araban emakumezkoen kirola sustatzeko duen programaren barruko ekimena da hau.

Helburua: Emakumezkoen kirola sustatzea, batez ere, 9 eta 15 urte bitarteko nesken artean, Vitoria-Gasteizen eta Araban. Emakumezkoen kirola sustatzea, eskolaz kanpoko jarduera den aldetik ez ezik, lanerako irtenbide izan daitekeen aldetik ere, joko garbia eta lehiakortasun osasuntsua sustatuz.

Kategoriak eta adinak: Lau kategoria antolatzen dira: Benjaminak, Alebinak, Infantilak eta 1. urteko kadeteak.

Jokalekua: Estadio Fundazioaren instalazioen jokatuko da.

Osasun estaldura: Ez txapelketaren antolatzaileek, ez ekitaldia egingo den instalazioak, ez dute euren gain hartuko parte-hartzaileen egoera fisikoaren ardurarik, ezta lesio baten kasuan gerta litekeenaren gaineko erantzukizunik ere.

Txapelketaren arauak:

MODALITATEA banakakoa

TXAPELKETA-SISTEMA: 30 minutuko onena

ARBITRAJEA: Pistan, epaile-lanak egiten arituko den pertsona bat egongo da.

Sariak: Parte-hartzaile guztiei oparituko zaie motxila bana, edaria eta programaren kamiseta. Gainera, txapelketaren irabazleek opari gehigarria eta domina jasoko dituzte.